

Iruñean, 1983.eko Ekainaren 24ean, arratsaldeko lauretan egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante, P. Altuna, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. Apecechea, J. A. Arana, R. Badiola, A. M. Etxaide, J. M. Etxebarria, P. Goenaga, F. Ixurko, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, K. Rotaetxe, P. Uribarren, P. Yrizar, J. Yurre, P. Zabaleta eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Maiatzeko batzar-agiria onartu da.

Euskaltzain urgazle zen Uztapide bertsolariaren hil-berria eman du Euskaltzainburuak. J. San Martin jaunak egin du zenduaren goratarrea. Bertsolarien eskola zaharreko eredu, egoera txarrean herriz-herri beste batzurekin egindako lana aipatu du, teknika onez eta bizitasun askorekin bertsoak egiten zituela esateko.

J. Caro Baroja, euskaltzain ohorezkoak, "Principe de Asturias" saria jaso berri du eta zorionak ematea erabaki da.

### Goizeko bilkuraren berri

Nafarroako ordezkaritzan bildu dira goizeko hamaiketan euskaltzainak. Akademia arteko harremanen kontu eman du, lehenik, J. San Martin *JAGON*. Sailburuak. Madrilgo azken bilera ondorean, gauzak honela daude: harremanen jarraipena beharrezkoa ikusten da, alde batetik. Asmoa guregandik sortu denez gero, eragile Euskaltzaindia bera izatea eskatu zaigu. Datorren bilkura irailean egingo da eta, behar bada, Erregeren bisita elkarrekin antola dezakegu.

Itzulpenen lehiaketa Madrilen epaitzeko, arduradunen eskariz, ordezkaria izendatu da, eta P. Altunak egingo du.

Canada-ko hizkuntza ofizialen komisari den Maxwel Yalden Euskal Herrira etortzekoa da, eta euskaltzainekin mintzatzeko asmoa agertu duenez, datorren uztailaren 6an, eguerdiz, Durangon bilduko da Euskaltzainburugoa bertara datozen euskaltzainkideekin M. Yalden jauna agurtzeko.

Azken orduko gaietan, uztailleko batzarra azken-aurreko ostiralera aurreratzea aipatu da. Horretarako, **Euskeraren** lehen urteetako birrargitalpenak gertu egongo diren ikusi beharko da, egun horretan aurkeztu nahi baitira.

### Gramatika batzordea

Euskaltzaindiaren X. Batzarrari dagokionez, Gramatika batzordeko idazkari den Patxi Goenaga mintzatu da. Lehengo eskema berari jarraituz, azkenaldi honetan izan dituzten harremanen berri eman du. Puntu nagusien artean, txostenak aurkezteko epea, Batzarrak izan dezakeen diru kostuaren kopurua, eta egunen mugaketa ukitu ditu. Azken gaiari buruz, 1984.eko irailaren 25etik 29ra bitarteko egunak ikusten dira, oraikoz, egokienak.

Lehen eguneko arratsaldean, A. Campion-en gorazarre ospakizuna egingo litzateke, hiru egun gramatika gaietarako utzi eta, 29an Batzarraren ondorioak har daitezke.

Euskal gramatika guzien erakusketa ere aipatu da eta interesgarri iduritu zaie batzartuei, bibliografia zehatz batekin batera. J. A. Aranak egingo omen du zerrenda, bakoitzaren oharrekin osotzeko.

Batzarrean parte hartuko dutenen arazoa ukitu da gero. Batzordekoek landa, edozein euskaltzainek bidali dezake lan bat. Gramatika batzordearen esku gelditzen da, noski, azken erabakia hartzea. Atzerritarrei buruz, zera esan da: komeni dela, izen ospetsuren batzu kontutan harturik, gomitaren bat edo beste geure aldetik egitea. Norkerian arriskua baztertzeko, dei orokorra denentzat berdina egitea, eskatu da, eta lehen-bait-lehen egin ere. Zer erantzun duen ikusi ondoren, gomita zerteko bigarren delia egin daiteke, zenbait pertsonen zerrenda mugatuagoa aurrean dela.

Hizkuntz batzordea, Gramatika batzorde bera izango da, L. Mitxelena buru dela. Antolakizun batzordea, berriz, honako hau: J. M. Satrustegi buru, J. L. Lizundia idazkari, J. Apecechea, P. Diez de Ulzurrun, A. M. Etxaide eta J. J. Zearreta.

Batzarraren inguruan festagairen batzu antolatzeke asmoa agertu da: musika, antzerki, dantza eta Nafarroan zehar txangoren bat edo beste.

Ordu bat et'erditan, prentsaurrekoa egin da.

### Txostenak

Aresti zenaren gutunak aipatu ditu J. M. Satrustegik. Pragatik ekarritako hama-bi gutun, eta N. Tauer jaunak egindako beste horrenbeste erantzunen kopiak baliatuz, hiru gai nagusi ikusten ditu: a) Euskaltzaindia eta euskaltzainekin lotura dutenak, b) Literatur gaiak, eta c) Arestiren bizia eta familia gaitzat daukatenak. Lehen mailakoak dira txosten honetarako aurkeztu dituenak.

J. Apecechea jaunaren txostena, J. Lizarraga Elkanokoaren bertso bilduma ugaria zer eta nola den aurkezteko izan da. 13.500 bertso lerro, lau ataletan banatuak: Ama birjina, Jesus, Sakramentuak, eta Doktrina Christioa. Txostengileak denen bilketa eginga du eta Euskararen Lekukoetan argitaratzea erabaki da.

J. Yurrek bere txostenean, Zeanurin jasotako *San Martinen kanta* aurkeztu du. Aldez aurretik, L. Villasante euskaltzainburuak ongietorria eman dio, China-n misiolari eta Euskal Herrian idazle izan den euskaltzaleari, euskaltzain urgazle izendatu berri baita da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
Fr. LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JOSE M.<sup>a</sup> SATRUSTEGI